

Euskariak bere kezka azaldu du paktu estrategiaren aurrean


P.A. / DONOSTIA

'Gure kezka sakona' izeneko agiria kaleratu zuen atzo Euskaria erakundeak, hauteskunde osteko paktu estrategian politikoek izan duten jarrera «lotsagarria» salatuz Euskal Herriaren subiranotasuna lortzeko «batasuna ezinbestekoa» dela aldarrikatu.

Gobernu osaketetarako alderdiek izan duten paktu politikak haserrea eta desenkonta sortu dutela euskal gizarteak dio Euskariak, eta «horrek Euskal Herriko giza biolentzia egoera areagotzea dakar». Erakunde honen ustez, jarrera honek subiranotasunaren kontra egin du. «Hautontziek eman dioten boterea beraien onerako erabiltzen dituztenek eta boto horiek lortzeko baliogarri izan duten nortasun zeinuen utzikeria egiten dutenek ongi aztertu beharko lukete Herri batentzat handinai, kolaborazio eta traizio hitzek zer esan nahi duten, eta garbi azaldu nora eraman nahi duten Euskal Herria eta nola»

dio Euskariaren agiriak. Horren berri prentsaurrekoan eman zuten atzo erakunde honetako kideek, Mikel urkola, Jose Landaluze, Andoni Perez Cuadrado eta Françoise Unhasobizkaik. Subiranotasuna lortzeko abertzale guztien batasuna «ezinbestekoa» dela azaldu zuten, «guretzat garbi baita dago, eta behin eta berriro erreplikatu dugu gure herriaren etsaiak Madril eta Parise dirrela, eta kanpoan daudela eta ez barruan» esan zuen Landaluze, Euskariako idazkari nagusiak.

Demokrazia ordezkatzilearen sistemaz alderdiek egiten duten erabilerak «egoera ulergaitzeta» garamatzala dio agiriak, «zenbait sektore abertzaleri dagoeneko ez zaiela Euskal Herria libre, berbateratua eta euskalduna ikustea interesatzen pentsatzeko modukoa». Eslovenia eta Kroazia eta Baltikoki errepublikan «ausardia» kontutan hartzeko dela dio, «beraien lejitimitatea aldearrikatzeko gai izan direlako inposatutako legalitatearen aurrean».



Alderdiek subiranotasunaren kontra egin dutela dio Euskariak.

VILLAGRAN



Unibertsitateko irakasle, abokatu eta kazetariak osatutako taldea da. J.SIMAL

GAL auzia nola doan salatu du euskal profesional talde batek

BILBO

Jose Amedo eta Michel Dominguez poliziak epaitzen ari den Epaimahaiko lehendakariaren «konpilizitate politikoa» salatu zuena atzo ehundik gora euskal profesionalak. GAL auzia nola garatzen ari den eta 'Corcuera legea' salatu zuten atzo prentsaurrekoan unibertsitateko irakasle, abokatu eta kazetariak osatzen duten plataformako bozeramaleek.

Atzo aurkeztu zuten idazkiak «demokrazia ideien inguruan Estatuaren eta gizarte zibilaren artean dagoen desberdintasun sentimentuari erantzuten dio» bozeramaleek Bilbon esan zuten.

Egun demokrazia defendatzeak «Estatuari enfrontatzea demokrazia hori eskatzen du, GAL auzian Administrazioak dituen erantzunkizunak argitzea, eta Hiri Segurtasunerako Legea atzera botatzea». GAL auziko epaiketari dagokionez, «giza mobilizazio prozesu fuerte bat ez

badago, Estatu 'txapuz' horietatik libre geldituko da». Epaiaketa honetan epaimahaia «herri akusazioa akusatua bihurtzen» ari dela salatu zuten.

«Gobernu zentrala eta Amedo eta Dominguez epaitzeko Mahaia osatzen dutenak bat datoz eta helburu bera dute: inork ez dezala jakin zein den GALen ekintza terroristen arduradun nagusia» dio euskala profesional talde honek kaleratutako agiriak. Hiri Segurtasunerako Legari buruz, «sistema totalitarioetako jarrera atzerakoietara mugatzen da eta orainarte ezagutzen ez ziren kompetentziak ematen diote poliziari» prentsaurrekoan salatu zuten.

Esloveniako lehendakariari elkartasun mezuaz igorri dio HBk

IRUNEA

Herri Batasunak elkartasun mezuaz helarazi zion atzo Milan Kaucan, Esloveniako lehendakariari, Erreforma Demokratikoen alderdiaren zuzendaritzaren bitartez. HBk harremanak ditu alderdi horrekin.

Alderdi abertzalearen mezuak honela dio: «Gure elkartasuna eta errekonozimendu politikoa opa dizkizuegu eta nozitu duzuen eraso militarra eta EEEaren azolagabekeria salatzen dugu. Gure europarlamentariak zuen herriaren nahia errekonozitua izan dadin eskatuko du Europako Parlamentuan. Elkartasuna». Jugoslaviak, Estatu Batuak eta Europako Elkartearen laguntzarekin, Esloveniaren independentzia aldarrikatzen dutenen aurka burututako errepresioa kondenatu du HBk.

HBren iritziz, Eslovenian gertatzen ari diren enfrontamendu armatuak «ez dira inolaz ere gerra zibila, baizik eta Estatu baten botere militarren saioak Esloveniako herriaren nahia zapaltzeko». Ardanza lehendakariak, HBkoen hitzetan, «bere lotsa politikoak HB erasotuz nahi ditu ezkutatu. Ardanzak Esloveniako izpilian begiratuz gero, gure herriaren independentzia aldarrikatu beharko luke, eta jakin dezala Eslovenian bezain baketsu arituko ginatkeela gu Euskal Herriaren subiranotasunaren defentsan».

TUBACEX C.E. DE TUBOS POR EXTRUSION S.A. AKZIONISTEN BATZARRE NAGUSIA 1990.EKO EKITALDIA

ATAL NABARMENAK

- Ekitaldi disparetsua, mundu mailan soldaketa gabeko altzairuzko hodian sektorean, Golko Persikoaren krisisa izan dela eta, ezezko eraginagatik oso baldintzatua.
- Lehenengo 7 hilabetetan, 271 milioi pezetako irabaziak lortu ziren.
- istiluaren hasieratik azken 5 hilabetetan, eskari eta prezioen jeitsiera zela eta dolarraren baliogalera ere, 1.025 milioi pezeta galdu ziren. Matrize elkartean, ekitaldiaren galerak 750 milioi pezetatan kokatu ziren.
- Salmenta finkatuak, 18.691 milioi pezeta izan dira, 1989.ekoetatik, ehunetik 2 beherakoak. Esportazioak, salmenten % 75 izan dira. Galera sendatuak, 683 milioi pezetakoak izan dira.
- Diruzaintzaren likidezia, goi mailakoa da, 3.500 milioi pezetatik gorakoa.
- 1991.ko lehen hilabetetan, krisiaren egoerak armatu irtenbidera helduz, eskari, prezio eta emaitzen narriadura, oraindik narriagotu egin du, lehenengo hiru hilabetetan galerak 620 milioioak direlarik.
- Hala ta guztiz ere, merkatuaren berreskurapena oso azkarra izaten ari da, batez ere, geldi dauden kimiko eta petrokimiko proiektu handien bultzadaz. Ondorioz, eskabide-karterak, maiatzaren erditik hasita, zuzpertz handia izan du. Dolarraren estima handia honi gehituz, hilabete mailan, Iraila hilabetearen emaitza ia orekatsua espero dira. Eta urtearen azken lau hilabetetan positiboak.
- Falta den urteroko ikuspegiak, eta 1992rakoak batez ere, oso positiboak dira une honetan.
- Prebisio faboragarri hauekin bultzadaz, TUBACEXek, zorionez gaindituta krisialdiko elkarriketatzen zegoen inbertsio industrialia Estatu Batuetan, 1991ko Ekainaren 18an formaldu egin du.
- Bestalde, finantze desinbertsio batzuk planeatuta daude, plusbalio nabarmenak lortu ahal izateko.
- Azkenik, aintzindari elkarteekin, elkartasun estrategikoak kontutan hartzen dira soldaketa gabeko altzairu herdoiltzinezko mundu merkatuan.

1991ko Ekainaren 25ean

Lerro artean

Epaiketa paraleloa



Elkarrizketa batek astinduzuen Amedo eta Dominguez epaiketaren bazterrak. Komunikabide batek errealitate politikoan esku hartzeko modutako bat erabiltzen zuen eta «aldatzeko ahalmena» eduki nahi zuen elementu bat aurkeztu zuen. **Antena 3** telebistak Blanca Basaltegiaren adierazpen batzuek eskaini zituen herenegun. Blanca Basaltegi Dominguez maitale ohia da eta datorren asteartean deklaratu du epaiketaren lekuko gisa. Antena 3-ek esku tartean zituen adierazpenei garrantzia eman eta oihartzuna lortu nahian fax-ez bidali zien Madrileko komunikabideei laburpen bat. Intertzionalitatea bazegoela argi zegoen. Bilatu nahi zen ondorioa erraz asmatzeko zen, alegia, honelako titularrak: «Blanca Basaltegi atzera egin du eta ukatu

egin du poliziek onartu izana GALEkoak izatea» (*El Correo Español*). Edo beste honako hau: «Karguko lekuko batek hitza jan du eta Amedo GALEkoak izateaz errugabetu du» (*El Sol*). Horrelako adierazpenak albiste direla jakina da, baina epaiketaren martxa baldintzatu nahi dituztela ukaezina da ere. Honez gain, epaiketa indarreen ari denean, horrelako elkarrizketa bat epaiketari buruzko albisten artean tartekatzeak efektu berezia du: komunikabide batean esandakoa tribunalaren aurrean adierazitako lekukotasunarekin nahasten da. **Antena 3** telebistak balantza alde batera mugitu nahi zuela argi dago. Casado, akusatuen abokatuak berak horrela ulertu zuen eta —Melchor Mirallesek *El Mundon* ohartarazten zuen bezala elkarrizketa emititu baino lehenago «180 graduko bira» aipatu zuen. GALen trama argitzen lagundu duten komunikabideei «epaiketa paraleloa» leporatzen dietenen al-

detik etorri da komunikabide batek egindako esku hartzea.

Hauteskunde ondoko paktuen mundura etorrira, adierazgarria da atzoko aleetan hiru egunkarik komentario bana eskaintzea Nafarroako Gobernuaren osaketaren aurrean paktu aukera eta jarrerei buruz. Javier Legardak, *Navarra Hoy* egunkarian, aurreko egunetako hausnarketan ildotik egiten zuen atzokoa. Batetik «aurrerabideko gobernuaren» aldeko argudioak eta bestetik HBren jarrera Urralbururen Gobernuaren bideratzea «logikoena» bezala defendatzea. Satur Leoz, *Deian*, «goren arteko elkarrizketaz» hitz egiten zuen. Juan Manuel Idoigak, *Eginen*, EAKoei gauzak argitu nahi omen zizkien, hau da, «HBren analisisetan» Urralburu Alli bezain «erreakzionarioa» dela eta «aurrerabideko gobernu» egin nahi badute «frogak» erakutsi behar dituztela.

PELLO URZELAI